

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Aguazila-zerbitzu askotarako langile plaza bat betetzeko deialdia

Iruña Okako Udalaren plantillako aguazila-zerbitzu askotarako langile plaza bat lehiaketa-oposizio bidez hornitzeko deialdiaren oinarriak.

Ikusi da udal plantillan hutsik dagoen aguazila-zerbitzu askotarako langile plaza jabetzan betetzeko 2014ko enplegu eskaintza publikoa, alkatearen uztailaren 14ko 325/2014 Ebazpenaren bidez onartua eta ALHAOn (86. zenbakia, 2014ko abuztuaren 1ekoa) eta EHAAr (156. zenbakia, 2014ko abuztuaren 20koa) argitaratua.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 23. artikuluan eta II. titularen IV. kapituluan langileak hautatzeari buruz ezartzen duenarekin bat etorritik, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1g) artikuluan ematen dizkidan ahalmenak baliatuz,

Ebatzi dut:

Lehenengoa. Onartzea karrerako funtzionarioa hautatzeko prozesua arautuko duten oinarriak. Lanpostu horiek Iruña Okako Udalak 2014rako egindako enplegu publikorako eskaintzakoak dira, administrazio orokorreko eskalakoak eta laguntzaileen azpieskalakoak.

Bigarrena. Oinarri hauen xede diren hautaprobetarako deia egitea.

Hirugarrena. Bai deialdia bai hautapoben oinarrien testu osoa ALHAOn argitaratzea eta udal iragarki taulan jartzea. Deialdiaren laburpen bat EAOn argitaratuko da, eta horren iragarkia argitaratzen den eguna erabiliko da eskaerak aurkezteko epea zenbatzeko.

Laugarrena. Ebazpen honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu daiteke. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, azaroaren 26ko 39/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duen moduan. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera.

Iruña Okako Udalaren plantillako aguazila-zerbitzu askotarako langile plaza huts bat (karrerako funtzionarioa) lehiaketa-oposizio bidez hornitzeko deialdiaren oinarriak.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

1.1 Deialdi honen helburua da aguazila-zerbitzu askotarako langilea izeneko plaza bat (karrerako funtzionarioa) lehiaketa-oposizio bidez jabetzan hartzea. Lanpostu hori administrazio orokorreko eskalakoa da, menpekoen azpieskalakoa eta hutsik dago Iruña Okako Udaleko lanpostuen zerrendan.

0.2 Plazak 2. hizkuntza eskakizuna du esleitura, derrigortasun datarik gabe.

0.3 Lanpostuaren soldata, aparteko ordainsariak eta gainerako lansari osagarriak udalaren lanpostuen zerrendan E taldeari eta 11. mailari dagozkienak izango dira.

0.4 Ariketa baztertzailak gainditzeko dituzten izangaiak deituriko lanpostuak baino gehiago badira, zerrenda bat osatuko dute, eta zerrenda hori lan poltsa modura erabiliko da, udalak

antzeko lanpostuetarako edo berdinetarako dituen langile beharrak osatzeko, horretarako ezarriko diren irizpideak kontuan hartuz.

Bigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak

2.1 Lanpostuen eginkizunak, egitekoak, rolak eta bestelako ezaugarriak eranskinetan zehaztuko dira, izangaien informaziorako eta hautaketa prozesua ebaluatzeko irizpideen oinarri gisa erabiltzeko.

2.2 Lanaldia Iruña Okako Udalak urtero zehazten duena izango da. Hala ere, hautatuak lanpostuen izaera eta beharrian bereziei erantzungo die. Lanpostuaren dedikazio erregimenena lanaldi osoa da, eta lanaldi zatitua, goizez eta arratsalde, izan daiteke.

2.3 Lanpostu horrek ez du ematen xede zehatz batean lan egiteko eskubiderik; beraz, langilea leku batetik bestera alda daiteke, lanpostu beraren barruan.

Hirugarrena. Izangaien betebeharrak

Onartuak izateko, eta hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiek:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bereizita ez badaude, bai eta herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta legez bereizita ez badaude. Azken horiek 21 urte baino gutxiago izan beharko dute edo bestela gurasoen kontura bizi.

b) Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen 18 urte beteta izatea, baina nahitaezko erretiroa izateko adina baino gutxiago.

c) Eskola ziurtagiriaren titulu akademikoa edo homologatua izatea, edo titulua jasotzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.

d) B1 motako gidabaimena izatea.

e) Lanpostuaren berezko egitekoak behar bezala betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.

f) Aukeratutako lanpostuaren ohiko zereginetan jarduteko gaitasun funtzionalak edukitzea.

g) Estatu, autonomia erkidego zein toki administrazioaren zerbitzuetatik zigor espediente bidez baztertuta ez egotea edo, zeregin publikoak betetzeko, gaitasuna galduta ez izatea.

Oinarri honetan aipatutako betekizun hauek eskabideak aurkezteko epea amaitzeko egunean bete behar dira eta hautaketa prozesuan eutsi.

Laugarrena. Eskaerak aurkeztea

Hautaketa prozesuan onartuak izateko eskabideak Iruña Okako Udaleko alkate lehendakariari bidaliko zaizkio eta ondorengoak beteko dituzte. Eskuragarri egongo da udalaren web orrian: irunadeoca.eu

4.1. Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaerak eredu ofizial eta normalizatura egokituko dira, eta Iruña Okako Udalaren bulego orokorretan eskuratu ahal izango dira.

4.2. Edukia: eskaeretan honako alderdiak jasoko dira:

a) Eskaerak aurkezteko azken egunean hirugarren oinarrian adierazten diren baldintza guzti-guztiak betetzen direla.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik zeinetan egin nahi diren probak adieraziko da.

c) Ehuneko 33ko minusbaliotasun maila edo handiagoa duten pertsonen probak egiteko behar dituzten denbora edo bitarteko egokitzapenak eskatuko dituzte, gainerako izangaien baldintza beretan aritzeko.

d) Eskaera aurkezteak deialdian eskatzen diren baldintzak eta eskakizunak onartzen direla esan nahi du. Hautagairen batek datu faltsuak emanez gero, hautapen prozesutik kanpo geratuko da.

e) Euskararen hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egin nahi dituzten izangaiek eskabidean adierazi beharko dute; eskaerak aurkezteko epealdiaren barruan horren berri aditzera ematen ez badute, ezin izango dute parte hartu proba horietan.

f) Merezimenduak eskaerarekin batera aurkeztuko dira, eta lehiaketa fasean ezarritakoari jarraituz egiaztatuko.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira eskaerarekin batera:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia.

b) Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatutako titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua edo hura lortzeko ordaindutako eskubideen kopia konpultsatua.

Lehenengo ariketaren behin-behineko kalifikazioarekin batera, epaimahaiak hamar eguneko epea jarriko du izangaiek merezimenduak egiazta dezaten zazpigarren oinarrian ezarritakoaren arabera.

4.3. Eskaerak aurkezteko lekua:

Iruña Okako udal erregistro orokorrean (Lehendakari Agirre plaza, 1. Langraiz Oka) edo, bestela, zernahi posta bulegotan edo administrazio publikotan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkidearenaren, 38. artikuluan ezarritako eran. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen.

4.4. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak deialdiaren iragarkiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratu ondorengo 20 eguneko epean aurkeztu beharko dira.

4.5. Eskabideetako akatsak zuzentzea:

30/1992 Legearen 71. artikulua arabera, eskabideetan akatsik egonez gero, interesdunari galdatu egingo zaio, hamar eguneko epean okerra zuzen dezan. Halakorik egin ezean eskabideari uko egin diola ulertuko dela jakinaraziko zaio.

4.6. Lehiaketa kudeatzean, Langileen Kudeaketa fitxategian, 2010eko martxoaren 15ean onartutakoan, tratatuko dira datu pertsonalak. Iruña Okako Udala da fitxategi horren ardura duen administrazio erakundea. Fitxategi hori dela eta, datuetan sartzeko edo datuak zuzentzeko zein ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak balia daitezke, idazkaritza orokorrean bertan.

Bosgarrena. Izangaia onartzea

5.1 Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, alkate lehendakariak deialdian onartu eta baztertu direnen behin betiko zerrenda onartuko du, baztertzeko arrazoiekin batera.

5.2 Zerrenda hauek ALHAOn argitaratuko dira. Horrez gain, Iruña Okako Udalaren iragarki taulan eta web orrian azalduko dira. Egokitze jotzen diren alegazioak egiteko 10 egun balioduneko epea egongo da, iragarkia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Ebazpen horretan bertan, halaber, epaimahai kalifikatzailea, nola titularra hala ordezkoa, eratzen duten pertsonen izenak argitaratuko dira.

5.3 Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, besterik gabe. Erreklamaziorik egonez gero, beste ebazpen baten bidez onetsi edo ezetsiko dira. Ebazpen horretan ere behin betiko zerrenda onartuko da, eta berau ere argitara emango da lehen adierazitako eran.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea

6.1 Osaera: deialdiaren epaimahai kalifikatzailea honela egongo da osatuta:

Lehendakaria: Herri Administrazioako funtzionario bat.

Lehen kidea: Herri Administrazioako funtzionario bat.

Bigarren kidea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat.

Hirugarren kidea: alkateak izendatutako teknikari bat.

Laugarren kidea: 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 99.2 artikuluan ezarritakoa betez, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak direla eta, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako kide bat.

Idazkaria: udal idazkari orokorra edo hura eskuordetzen duena.

6.2 Espezialitatea: kide guztiek deialdian sartzeko eskatzen den maila bereko titulazioa edo handiagoa izan beharko dute eta epaimahaikideen, gutxienez, erdiek, berriz, jakintza esparru bereko titulazioa.

6.3 Prozeduran parte ez hartzea eta errefusatzeari: Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkidearen Legeak 28. artikuluan xedatutako egoeretakoren bat gertatuz gero, epaimahaikideek ez dute parte hartuko. Edozein interesdunek errefusatu ahal izango ditu epaimahaikideak, egoera horietakoren bat gertatuz gero.

6.4 Aholkulariak: epaimahaiak adituen aholkua eskatu ahal izango du, beharrezkoak ikusten dituen probak programatu edo ebaluatzeko. Aholkulariek beren espezialitate teknikoetan baino ez dute emango laguntza.

6.5 Eraketa eta lan egitaraua: lehenengo proba egin baino lehen epaimahaiak bildu egingo da, kideen gehiengoa (titularrak edo ordezkioak) bertan izanik. Bilerak horretan hartuko dira behar diren erabakiak hautaketa prozesua era objektiboan eta eraginkorrean programatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko.

6.6 Jardun prozedura.

6.6.1 Epaimahaiaren jardun prozesua 30/1992 Legean, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkidearenean, ezarritakoaren arabera izango da beti.

6.6.2 Epaimahaiak arauok aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak argituko ditu eta neurri egokiak hartuko ditu probetarako beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko.

6.6.3 Epaimahaiak, eratu ondoren, kide gehienen presentzia beharko du, titular zein ordezkio, modu baliagarrian jarduteko. Kide horien artean, epaimahaiburuak eta idazkariak, edo haien ordezkioak, egongo dira.

6.6.4 Epaimahaiak ezin izango du onartu, inola ere, hautaketa prozesua gainditu dutenak deialdian agertzen diren lanpostuak baino gehiago izatea. Horrek ez du baztertzeko halakoez baliatzea iraunkorra ez den lana egiteko, lan poltsen beharra dagoenean.

6.6.5 Izangai batek ere gainditzen ez baditu baztertzailak diren proba guztiak, lanpostuak bete gabe geratuko dira.

Zazpigarrena. Hautaketa prozesua hasi eta gauzatzea

Hautaketa prozedurak bi zati izango ditu: bata oposizio aldiko ariketak egitea eta baloratzea eta bestea lehiaketa aldiaren aurkeztutako merezimenduak baloratzea.

7.1. Oposizio aldiko lehenengo ariketa egiteko data, ordua eta lekua ALHAOn, udaleko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako izangaien zerrendekin batera.

7.2. Udal iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko dira gainerako ariketei buruzko iragarkiak.

7.3 Izangaiei ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo zaie, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak berak erabakiko dituen ezinbesteko kasuetan salbu.

A) Oposizio aldia.

. Lehenengo ariketa: (nahitaezkoa eta baztertzalea izangai guztientzat).

Epaimahaiak oinarri hauetako eranskinean adierazten den gai zerrenda orokorraren eta espezifikoen inguruan prestatu duen galdera sorta bati (test antzekoa) erantzun zaitza idatziz. Epaimahaiak erabakiko du zenbat galdera egingo diren, erantzun okerrak zigortuko diren ala ez, probak zenbat iraungo duen...

Ariketa honetan, gehienez, 20 puntu lortu ahal izango dira eta, hura gainditzeko, gutxienez, 10 puntu lortu beharko dira.

. Bigarren ariketa: (nahitaezkoa eta baztertzalea izangai guztientzat).

Ariketa praktikoa izango da, eta idatziz erantzun beharko zaie lanpostuaren eginkizunei edo oinarri hauetan II. eranskinean jasotako gai zerrendakoei buruz epaimahaiak galdetutakoei. Ariketa honetan, gehienez, 20 puntu lortu ahal izango dira eta, hura gainditzeko, gutxienez, 10 puntu lortu beharko dira.

. Hirugarren ariketa. Lanpostuaren profilera egokitutako ariketak.– (nahitaezkoa eta baztertzalea izangai guztientzat).– Gaitasun probak eta nortasun probak edo elkarrizketa pertsonala egingo dira, izangaia lanpostura egokitzen den ala ez erabakitzeko.

Ariketa hori "gai" edo "ez gai" kalifikatuko da, eta hautaketa prozesutik at geratuko dira gainditzen ez duten izangaia.

Edonola ere, epaimahaiak ariketak egiteko ordena aldatu edo ariketa batzuk egun berean egitea erabaki ahalko du.

B) Lehiaketa aldia.

Zehaztutako epean izangaiek egoki egiaztatutako eta aurkeztutako merezimenduak aztertuko eta balioetsiko dira, hizkuntza eskakizunari dagozkionak izan ezik. Horako horiek euskara azterketa egin aurreko egunera arte egiaztatu ahal izango dira. Hona ezarri diren irizpideak:

Esperientzia:

a) Eginkizun antzeko herri administrazioen lanpostuetan eskainitako zerbitzuengatik, puntu 1 egiaztatutako urte oso bakoitzeko. Gehienez ere, 4 puntu.

6 hilabetetik beherako epeak ez dira zenbatuko.

Honako era honetan egiaztatuko da administrazioan pilotutako esperientzia: zerbitzuak eskaini diren administrazioaren ziurtagiri bidez. Ziurtagiri horretan kontratuaren iraupena eta lanpostuaren izena eta eginkizunak zehaztuko dira. Azken horiek deitzen den lanpostuari esleitu zaizkion eginkizunen arabera balioetsiko dira.

b) Tituluak eta prestakuntza: atal honetan gehienez ere 3 puntu lortu ahal izango dira.

– Batxiler titulua, bigarren mailako Lanbide Heziketa, edo antzekoak: puntu 1

– Zentro ofizialek edo herri administrazioek emandako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak, deitutako lanpostuaren berezko funtzioekin lotuta daudenak: 2 puntu emango dira, gehienez.

* 10 eta 40 ordu arteko iraupena: 0,40 puntu

* 41 eta 80 ordu arteko iraupena: 0,60 puntu

* 80 ordutik gorako iraupena: 1,00 puntu.

Egindako ikastaroak egiaztatzeko, horiek eman dituen erakunde ofizialak egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Ikastaroen iraupena zehaztu beharko da.

c) Euskara: plazak 2. hizkuntza eskakizuna du esleitura, derrigortasun datarik gabe. Merezimendu izango da hizkuntza eskakizunak egiaztatuta izatea. Hau esleituko zaie:

— 4 puntu bigarren edo handiagoa den hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izateari.

C) Euskararen balioespena.

— Plazak 2. hizkuntza eskakizuna du esleitura, derrigortasun datarik gabe. Merezimendu izango da hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izatea.

— Ariketak egingo dira euskararen jakite maila egiaztatzeko. HAEEK hautaketa prozesuetan hizkuntza eskakizunen azterketak egiteko deialdi bateratueterako ezarritako egutegiaren arabera egingo da ariketa hori.

— Honako agiri hauen bidez egiaztatu ahal izango da 2. hizkuntza eskakizuna: 2. edo goragoko hizkuntza eskakizunen bat edo haien baliokideren bat egiaztatu dela ziurtatzen duen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen agiri bidez. 2. hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria indarrean izango da euskara ariketa egin beharreko egunean.

Zortzigarrena. Epaimahaiaren proposamena

Oposizio aldiko proba bakoitza zuzendu ondoren, epaimahaiak dagozkion kalifikazioak argitaratuko ditu udal iragarki taulan eta web orrian.

Hiru egun balioduneko epea izango da azterketak berrikusteko eta, epe hori amaitzen denetik aurrera, bi egun balioduneko epea erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira, udalaren erregistro orokorrean, eta epaimahaiburuari zuzenduko zaizkio.

8.1 Proba baztertzailak gainditu dituzten izangaien azken kalifikazioa oposizio aldian eta lehiaketa aldian lortutako puntuak batuz aterako da. Azken puntuazio horren arabera ordenatuko dira behin betiko puntuazioak.

8.2 Ariketak kalifikatu ondoren, proposatutako izangaiaren izena jarriko du epaimahaiak iragarki taulan, azken puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordenaturik.

Berdinketa. Puntu berak lortuz gero, honela zehaztuko da hurrenkera: lehenengo eta behin oposizio aldian puntu gehien lortu duen izangaiaren alde; hala ere, berdinketak jarraituz gero, lehen ariketa teorikoan puntu gehien lortu duenaren alde eta, hala ere, berdinketak jarraituz gero, bigarren ariketa teorikoan puntu gehien lortu duenaren alde.

8.3 Epaimahaiaren iritziz lanpostua betetzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituen izangairik ez badago, lanpostua bete gabe utziko da.

8.4 Epaimahaiak ezin izango du, inola ere, deialdiko lanpostu kopurua baino izangai gehiago proposatu.

8.5 Epaimahaiak akta igorriko dio Iruña Okako alkateari, izendapenerako proposamenarekin batera.

Bederatzigarrena. Agiriak aurkeztea

Eskatzen diren agiriak:

9.1 Proposatutako izangaia 20 egun izango ditu bere izena argitaratzen den egunetik aurrera hautaketa prozesuan parte hartzeko behar diren betekizunak badituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko. Agiriak jatorrizkoak izango dira, honakoak hain zuzen ere:

— Jaiotza ziurtagiria, dagokion erregistro zibilak emana. Ziurtagiri horren ordez familia liburua erakutsi ahalko da.

— Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik, akats fisikorik ez psikikorik ez daukala egiaztatzen duen mediku agiria. Hala ere, apirilaren 7ko 13/1982 Legea, elbarriak gizarteratzeari buruzkoa, aplikatu ahalko da. Kasu horretan, minusbaliotasuna eta lanpostuaren berezko eginkizunak egiteko gaitasuna egiaztatzen duen agiri ofiziala aurkeztuko da, organo eskudunak emanda.

— Aitorpena, herri administrazioaren bateko zerbitzutik diziiplina espediente bidez baztertuta ez dagoela, eta ezintasun eta bateraezintasun kausaren batean ez dagoela adierazten duena. Bateraezintasun horiek zein diren abenduaren 26ko 53/1984 Legean, herri administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoan, eta apirilaren 30eko 598/85 Errege Dekretuan, herri administrazioetako langileen bateraezintasunei buruzkoan, daude jasorik.

— 6/1989 Legearen 43. artikuluan eskatu diren eta deialdiko oinarri espezifikoetan zerrendatuta dauden tituluen fotokopia konpultsatua.

9.2 Atal honetan adierazitako epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaia eskatzen diren agiriak aurkeztu ez baditu, edo agiriak aztertuta gero eskatutako betekizunetako bat ez duela ikusten bada, ezin izango da izendatu eta izangai horren gaineko jarduketa guztiak bertan behera utziko dira, gezurra esateagatik bere gain izango duen erantzukizunaz gain. Kasu horretan, eskumena duen organoak beste bat edo beste batzuk izendatzeko proposamena egingo du, hain zuzen hautaketa prozesua gaingitu eta azken puntuazioaren arabera zerrendan lehenengo proposatutakoaren atzetik datorrena edo datozenak izendatzekoa.

Hamargarrena. Probaldia

10.1 Aurreko oinarrian aipatzen diren agiriak aurkeztu ondoren, proposatutako izangaia praktiketako funtzionario izendatuko da; gehienez, 12 hilabete iraungo du probaldi horrek.

10.2 Probaldia edo praktika aldia amaitu baino lehen, alkateak eta idazkariak txosten bat egingo dute, dagokion arloa kontsultatu ondoren, izangaiari buruzko honako informazio hau adieraziz: lanerako dituen gaitasuna eta trebetasunak eta lanean izan duen errendimendua, erantzukizuna eta eraginkortasuna, lanerako prestutasuna eta ekimena, eta lanarekiko interesa. Kontuan hartuko da, era berean, lan taldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna eta kanpo harremanetan izandako zuzentasuna eta interesa.

10.3 Txostena aztertuta, izangaia probaldi hori gaingitzen badu, alkate-lehendakariak hala adieraziko du, eta, bestela, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide oro galduko du. Ebaluaketari buruzko txostena negatiboa bada, interesdunari entzunaldia emango zaio egokitzen jotzen dituen alegazioak egin ditzan. Haiek onartzen ez badira, zerrendako hurrengo izangaia izendatuko da probaldirako.

Hamaikagarrena. Aldi baterako lan poltsa

Oposizio aldia gaingitu dutenen zerrenda antzeko edo postu berdineko beharrak betetzeko erabiliko da.

Prozesuan lortutako puntuaren arabera eratuko da lan poltsa. Lan poltsa hori irizpide izango da lehentasunak zehazteko.

Udalak zerrenda hori baliatuko du antzeko lanpostu bateko eginkizunak betetzeko ordezkio bat behar duenean aldi baterako, hau da, lanpostu hori betetzen duena gaixorik, oporretan edo beste lizentzia edo baimenen batekin dagoenean edo lanak pilatzen direnean.

Hamabigarrena. Gorabeherak

Epaimahaiak ahalmena du sortutako zalantzak argitzeko, bai eta hautaketa prozesua behar bezala garatzeko behar dena erabakitzeko, oinarri hauetan zein legeri osagarrian xedatzen ez diren alderdiei dagokienez.

Hamahirugarrena. Aurkaratzeak

Oinarri hauek, deialdia bera eta horietatik zein auzitegien jardunetik datozen administrazio egintza guztiak azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua), eta uztailaren 13ko 29/98 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, araututako epe eta eratan aurkatu ahal izango dira.

I. eranskina

Lanpostuaren eginkizunak eta egitekoak

- Udalak onartutako erabakien eta ebazpenen jakinarazpenak eramatea norbanakoei.
- Dirubilketa zerrenda jasotzea.
- Aldizkari ofizialak (EAO, EHAA eta ALHAO) ordenatzea.
- Agiritegira joatea espedienteren baten bila.
- Udal bulegoetan dagoen bitartean udaletxera sartzen den oro kontrolatzea.
- Posta jasotzea. Posta postetxera eramatea.
- Udal bulegoak ireki eta ixtea.
- Legez kanpo dauden eraikinak zaintzea.
- Bandoetan eta ordenantzetan xedatutakoa hausteagatik salaketak jartzea.
- Ekipoen eta lanabesen ardura izatea, haiek kontrolatzea eta eskatzen dutenei eta baimen-duta daudenei uztea.
- Udal eraikinak, ekipoak eta instalazioak zaintzea eta kontrolatzea.
- Udal ibilgailua kontrolatzea.
- Udal ibilgailua erabiliz, deialdiaren berri ematea zinegotziei.
- Erakunde publikoetara, lege aholkularitzetara... agiriak eramatea edo haietan jasotzea.
- Ohiko tokietan jartzea informazio publikoa ematen duten ediktuak.
- Udal iragarki taula kontrolatzea.
- Udal eraikinetan zaintze eta konponketa lan errazak egitea.
- Zenbait material jaso eta lekuz aldatzea.
- Lankideak ordezkatzeko, zerbitzuaren premiengatik.
- Lanpostuaren egitekoekin zerikusia izan eta, indarrean dagoen legedia betez, eskatzen zaion zernahi eginkizun eta egiteko egitea.

II. eranskina

Gai zerrenda orokorra

1. gaia. Espainiako 1978ko Konstituzioaren egitura. Oinarrizko eskubide eta betebeharrak.
2. gaia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Eskumenak.
3. gaia. Udalerrria. Udal eskumenak. Udal organoak. Udalbatzaren eraketa, indarraldia eta agintaldiaren amaiera.
4. gaia. Alkatea. Eskudantziak.
5. gaia. Udalbatza. Eskudantziak. Erabakiak hartzeko beharrezko gehiengoa. Bilkuren araubidea.

Gai zerrenda espezifikoak

1. gaia. Administrazio prozedura: 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearena. Printzipio Orokorrak. Interesdunak. Parte ez hartzea eta errefusatzeta. Herritarren eskubideak. Administrazio erregistroak.
 2. gaia. Eskabideak, idazkiak eta jakinarazpenak Administrazioan aurkeztea. Eskabideak zuzentzea eta hobetzea.
 3. gaia. Laneko arriskuen prebentzioa: segurtasun eta higiene neurriak lanean.
 4. gaia. Jakinarazpenak. Datuen babesa.
 5. gaia. Toki erakundeen ondasunak. Motak eta araubidea.
 6. gaia. Udalerrriaren ezagutza. Udalerrriko herriguneak. Udal kale izendegia. Eraikin garrantzitsuenak, publikoak zein pribatuak. Toponimia mapa.
 7. gaia. Oinarrizko jakinduria argiketari, iturgin, arotz, igeltsero edo margotzaile lanetan.
- Orientazioko araudia:

1. Espainiako 1978ko Konstituzioa.
2. 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriko Autonomia Estatutuarena. (EAO, 306. zk.).
3. 27/1983 Legea, azaroaren 25koa, autonomia elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira lurraldeetako foruzko ihardutze erakundeen arteko harremanei buruzkoa.
4. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituen, 27/2013 Legeak, toki administrazioaren arrazionalizatze eta iraunkortasunarenak, aldatua. (EAO, 80. zk.).
5. 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena. (EAO, 285. zk.).
6. 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, toki erakundeen antolakuntza, funtzionamendu eta araubide juridikoa onartzen duena (EAO, 305. zk.).
7. 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, toki erakundeetako ondasunen araubidea onartzen duena (EAO, 161. zk.).
8. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, datu pertsonalen babesarena.
9. 13/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuen prebentzioarena.
10. Udalerriri buruzkoak jakitea. Udal kale izendegia eta toponimia mapa. (Udal web orria).

Langraiz Oka, 2015eko urtarrilaren 20a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA